



GIZAPEDIA

[gizapedia.hirusta.io](http://gizapedia.hirusta.io)

# KONTUEN IKUSKARITZA

Egilea: Itziar Egozkue

## 1 Izakinen ikuskaritza

Izakinen ikuskaritzaren helburuak honako hauek dira:

- Balantzean eta inbentarioan agertzen diren izakinak existitzen direla, horien kopuruak errealak direla, eta benetan enpresaren esku daudela egiaztatzea.
- Izakinen balorazioa orokorrean onartutako kontabilitate-printzipioen arabera dela egiaztatzea, modu uniformearen eta aurreko ekitaldietako erabilitako irizpideekin hausturarik gabe, irudi fidelagoa emateko justifikatzen ez den bitartean.
- Izakinen balio-galera estaltzeko zuzkidurak egin direla egiaztatzea, bereziki gutxitan errotatu edo mugitzen diren izakinei eta merkatu-balioa kostua baino txikiagoa duten izakinei buruz.
- Jabetza egiaztatzea, pignorazioak eta bahiturak kontrolatuz.
- Barne kontrola ikuskatzea, izakinen kudeaketa eta administrazioa modu egokian egiten dela egiaztatuz.
- Izakinen segurtasuna bermatzen dela egiaztatzea, babes-neurriak eta aseguruak kontrolatuz.

## 2 Izakin mota guztiak berdin ikuskatzen dira?

Erantzuna argia da: EZ. Dakigunez, izakinak enpresak saltzeko edo ekoizpenerako dituen produktu, artikulu eta materialen multzoa, hala nola lehengaiak, bideango produktuak eta produktu bukatuak. Izakin mota horietako bakoitzak ikuskaritza-irizpide ezberdinak behar ditu:

- lehengaiak dagokienez, ikuskaritza sinplea da, eta aski da hornitzaileen fakturak eta inbentarioak kontrolatzea kopuruak eta balorazioak egiaztatzeko;
- bideango produktuei dagokienez, ikuskaritza askoz ere konplexuagoa da, produktu hauek zein eraldaketa-fasean dauden egiaztatu behar izateaz gainera, horien balorazioaren arazoa ere kontuan hartu behar delako, kostuen kontabilitaterik ez daramaten enpresen kasuan areagotu egiten dena.